

5. gaia

Hizkuntzaren sorrera espeziean



L Irakurgaiak

Anaut, D. 2012. *Hizkuntzaren barrurako atea*, Bilbo, UEU. 2. kapitulua

Pinker, S., 2010, “Big Banga”, *Hizkuntza sena*, Bilbo: UPV/EHU.

Marrero, V., 2009, “Origen y adquisición del lenguaje”, in Escandell-eta (arg.), *El lenguaje humano*, Madrid: Ramon Areces

Escandell-eta (arg.), 2014. *Claves del lenguaje humano*, Madrid: Ramon Areces. 9. kapitulua, 4. atala: “Lenguaje y Cognición; El origen del lenguaje”.

Ayala, F. 2014. *Evolución para David*, Laetoli, Pamplona. 9. kapitulua, “El lenguaje”.





Filogenesia

Hizkuntzaren sorrera gizakiarengan.

Oroit: gizakia da hizkuntza-gaitasuna duen espezie bakarra.



Planoa

- 1 Hizkuntzaren sorreraren inguruko mitoak
- 2 - Hizkuntzaren sorrerari buruzko teoriak. Hizkuntza:
Zergatik/Zertarako?
Zeri esker?
Nola?
Noiz?
 - Mailakako garapena espeziean
 - Bat-bateko sorrera






Hizkuntzaren jatorriaren inguruko mitoak

- Kezka berantiarra: Eztabaidarik ez tradizio filosofiko greziarrear, latinoan, musulmanean.
- Tradizio kristauan ere gauza gutxi:
 - Hizkuntza aurrez existitzen da, Jainkoarekin batera
 - “Jainko Jaunak, landako abere guztiak eta zeruko hegazti guztiak lurrez moldatu eta gizonari eraman zizkion zein izen ezartzen zien ikusteko; honela, bizidun orok gizonak ezarritako izena izango zuen. Beren izena jarri zien, beraz, abere guztiei, zeruko hegaztiei eta piztiei”. *Genesisia* (2, 19)
- Hizkuntza primitiboaren bila:
 - Berpizkundean: zein da Zeruetako hizkuntza?
 - 'Hizkuntza gabetze' esperimentuak.





*Eskolako jarduna:
irakurketa eta eztabaida*

- Lehen hizkuntza/Zeruetako hizkuntza.


Astarloaren (1752-1806) *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*

(ikus ere *Apología de la lengua Bascongada o ensayo crítico-filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen, en respuesta a los reparos propuestos en el «Diccionario geográfico histórico de España»*)

Ricardo Gómez (2004), “Astarloaren *Discursos filosóficos* : iturriak eta axiomak”, *Lapurdum* 9.

<https://lapurdum.revues.org/822>






Astarloaren (1752-1806) *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*

...Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva ó Gramática y análisis razonada de la euskara ó bascuence. Astarloak berak dioskunez, bere lana bi zatitan banatu du. Lehenengoan (« Sobre si hubo ó no lengua primitiva » izenekoa, 5-112. or.) gizakien jatorrizko hizkuntza bakarra izan zela aldeztu du eta hizkuntza haren ezaugarriak finkatzen saiatzen da : lehen hizkuntza bakarra, perfektua, artikulatua eta naturala izan zela dio. Aldiz, bigarren zatian (« Gramática de la lengua primitiva » izenekoa, 113-773. or.), lehen hizkuntza hura oraindik existitzen dela aditzera eman nahi du ; hain zuzen, lehen hizkuntzaren ezaugarri guztiak zehaztu ondoren, eurak betetzen dituen hizkuntza bakarra euskara dela erakusten saiatzen da.

Ricardo Gómez: <https://lapurdum.revues.org/822>





Astarloaren (1752-1806) *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*

He determinado por lo mismo dividir mis tareas en dos partes y varios discursos en los cuales procuraremos averiguar con el mayor empeño : En el primero, si hubo ó nó un idioma primitivo, quiero decir, si los primeros hombres hablaron ó nó el lenguaje perfecto, desde el mismo instante en que fueron criados. Discurremos tambien sobre si este idioma fue de accion ó de voces articuladas. Si fue natural al hombre. Si éste lo adquirió á costa de tiempo y trabajo. Si el Sér Supremo quiso infundirle á nuestros primeros padres. Ultimamente investigaremos si fue uno ó fueron muchos.

En la segunda parte nos esforzaremos en averiguar, si existe ó nó en alguna de las naciones este deseado idioma. Filosofaremos para este efecto con la mayor atencion y escrupulosidad, sobre el mecanismo que hubo de haber tenido un lenguaje de que hicieron uso los primeros hombres. Empezando desde su alfabeto, recorreremos hasta la Sintaxis. No dejaremos, por mínima que sea, cosa alguna sin escudriñarla con el mayor cuidado. Estableceremos cuantas reglas y preceptos sean necesarios, para levantar el gran edificio de un perfecto lenguaje (Astarloa 1883 : 1-2).

R. Gómez, op.cit.



XVIII mendeko ideia linguistikoak

● Port-Royal komentu-eskolan egindako lanak : *Grammaire générale et raisonnée* (Arnauld & Lancelot 1660) eta *La logique* (Arnauld & Nicole 1662). Hizkuntza guztiek funtsean gramatika berdina zutela (Erdi Arotik zetorren tradizioa). [«gramatika orokorra/arazoitua/unibertsala »]

● **XVIII. mendea hizkuntzaren jatorriari buruzko hausnarketan mendea da...hizkuntzaren jatorriaren berreraiketa-saioetan datu enpirikoak eta asmaketa fantastikoak nahasian aurkitzen ditugu** maiz. Aspaldixko Kuehner-ek (1944) hiru teoriatan bildu zituen honelako gogoetak : **teoria tradizionala, teoria konbentzionala eta teoria sentsualista** izendatu zituenak...Teoria tradizionala Biblian oinarritzen da, nahiz eta Bibliak hizkuntzaren jatorriaz ez duen ezer zehatzegirik esaten...Jainkoak Adami eman zion hizkuntza (*lingua adamica*) eta hizkuntza horretatik sortu dira gainerakoak. Eskuarki Adamen hizkuntza hebreera izan zela uste zen,...beste hautagai batzuk azalduko dira eztabaidagarri. Ordea, hizkuntza guztiak hizkuntza bakar batetik datozelako ideiak —hizkuntzen monogenesiak— sendo jarraituko du...Hortaz, XVII. eta XVIII. mendeetako arrazionalismo frantsesaren babespean, *lingua adamicaren* ideia bera ere gainbehera abiatu zen. Honen kariaz, teoria konbentzionala deiturikoan gizakiek berezko ideiak dituztela (arrazionalismoaren hatsarrea berau) eta hotsak ahoskatzeko ahalmena ere badutela proposatzen da. Ondorioz, teoria honek planteatzen du lehen gizakiek hizkuntza asmatu egin zutela, euren ideiak ahoz islatzeko eta, horrela, komunikatzeko gogoia bete eta berez duten gizartekotzeko izaera adierazteko. Teoria honen aldekoentzat arrazoiaren eta hizkuntzaren arteko lotura logikoa frogatzea aski zen gizakiek hizkuntza asmatu zutela ziurtatzeko eta, beraz, logikaren argudioez baliatu ziren gehienbat...**Sentsualistak** filosofia enpiristaren jarraitzaileak ziren. Teoria sentsualistaren iritziz, gizakiok ideiak —eta, oro har, ezagutza guztiak— zentzumenen bitartez jasotzen ditugu, pixkanaka jaso ere ; hau da, ez dago berezko ideiarik. Hortaz, hasiera batean gizakiek ez zuten ideiarik eta, beraz, ez zuten hizkuntzarik, sentsualista gehienek lehen gizakia basatia zela uste baitzuten. Aurreneko sentsazioekin gizakiak hotsak ahoskatu zituen, edo gorputz-atalen bat mugitu zuen. Pixkanaka hots eta mugimendu horiek analizatu zituen eta horrela ideiak aurkitu. Une horretara iritsita, gizakia gauza zen keinu eta hots horien esanahiak finkatzeko eta, ideia berriak jaso ahala, keinu eta hots berriak sortzeko ere



- Aro berria (XIX. mendea): Hizkuntzalaritza konparatuaren ekarpena
→ Teoria indoeuroparra





- Hizkuntzalaritza konparatuaren ekarpena:
Teoria indoeuroparra.
 - ① Jatorrizko hizkuntza desagertua da
 - ② Zaila da munduko hizkuntza guztiak jatorrizko bakar bati lotzea





Gaiaren problematika eta berezko arazoak

- Mintzairaren sorrera:
 - Noiz?
 - Zertarako?
 - Zeri esker?
 - Nola?
- Zailtasuna: Hizkuntzaren izaera ebaneszentea (ez du aztarnarik/fosilik) uzten.
 - ® Zeharreko datuak eta frogak erabili behar dira: antropologia, etologia, anatomia, genetika, arkeologia, psikologia, etab.






Gaiaren problematika eta berezko arazoak

- Zailtasuna: Hizkuntzaren izaera ebaneszentea (ez du aztarnarik/fosilik) uzten.
 - ® Zeharreko datuak eta frogak erabili behar dira: antropologia, etologia, anatomia, genetika, arkeologia, psikologia, etab.
 - ***Evolución del cerebro humano: herramientas y lenguaje***
http://www.dailymotion.com/video/x2euk6l_evolucion-del-cerebro-humano-herramientas-y-lenguaje_school
 - ***Hablaban los neardentales?***
http://www.dailymotion.com/video/xan7az_hablaban-los-neardentales-evolucio_school
 - ***Pensamiento simbólico. Evolución del lenguaje***
http://www.dailymotion.com/video/xan7hc_pensamiento-simbolico-evolucion-del_school
 - ***Gen FOXP2 Neandertal: ¿Origen del lenguaje humano?***
<http://www.dailymotion.com/video/xh1j1p>
 - ***El genoma Neandertal: Gen FoxP2 (Svante Pääbo)***
<http://www.dailymotion.com/video/xl1et2>



Gizakien jatorria




Fechas aproximadas de la divergencia de los primates: orangutanes, gorilas humanos, bonobos y chimpancés

Fuente: http://www.nature.com/nature/journal/v421/n6921/fig_tab/nature01466.F3.html



Gizaki modernoaren jatorria



http://www.exploratorium.edu/evidence/index_espanol.html

Dakiguna

- Tximinoek ez dute hitzegiten. Beraz, (gizakien) eboluzioaren historian, hizkuntza gizakiak beste primateengandik banatu eta gero agertu behar zen (orain dela 5-7 miloi urte).
- Badakigu orain dela 8.000 urte gaur egungo hizkuntzen antzeko hizkuntzak hitzegiten zirela.
- Beraz bitarte horretan agertu behar zen hizkuntza.
Iritzi ezberdinak:
 - *homo habili* eta *homo erectus*-ekin lotzen dutenak (edo *australopitecusekin*).
 - orain dela 100.000-50.000 urte, *homo sapiens* eta *neardentalarekin* lotzen dutenak.

